



kultura zerbitzua

2025. URTEKO DIRULAGUNTZA

ESKORIATZAKO UDALA

ETA

GAYLUR ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

ESKUC5f9841d-9e05-4d92-bb7c-a0a8955d2bfe

Kodea	W23/0002	Udala	ESKORIATZA
CUDO	000.0034.AAAACYD28.8DA8		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACYD28.8DA8		
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaituz edo QR irudia irakurri ezazu			





BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udaleko alkatea.

ETA BESTETIK

PARTE HARTZEN DUTE

Edorta Zubizarreta Alegria jaunak **ESKORIATZAKO UDALAREN** izenean eta ordezkartzan.

Jonathan Galan Romero, NAN 72459699Q NAN zenbakia duena, **GAYLUR EUSKADI ELKARTE**Aren izenean eta ordezkartzan, bertako presidentea

Alde biek aitortzen diote elkarri hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna.

ADIERAZTEN DUTE

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako lehena **KULTUR DINAMIZAZIOA** izenekoa da.

Lerro horren I. ekintza Gaylur elkarteari diruz laguntzeko programa da. Helburua da LurAnitz jaialdia antolatzeko gastuak ordaintzen laguntzea.

Eskoriatzako Udaleko 2025eko aurrekontuetan 1.000 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusten da, 0400.481.334.52.01 partidaren kargura, Gaylur elkartearentzat..

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute alde biek.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da 2025eko ekitaldiko udal aurrekontuan Gaylur elkatearen izenean dagoen dirulaguntza izenduna antolatzea.

BIGARRENA.- UDALAREN KONPROMISOA.



Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du Gaylur elkarteari 1.000 euroko dirulaguntza emateko, 0400.481.334.52.01 aurrekontu aplikazioaren kontura, 2025eko ekitaldian elkarteak antolatuko duen LurAnitz jaialdiaren gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- GAYLUR ELKARTEAREN BETEBEHARRAK.

- LurAnitz jaialdiari buruzko txostena aurkeztea, jaialdiaren egitaraua eta aurrekontuarekin.
- Dirulaguntza ematea eragin duten baldintzak bete direla justifikatzea.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.
- Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan errekeritzen zaien informazio guztia ematea.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, diru-funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen.
- Zerga betebeharrak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari, baita dirulaguntzaren azkenengo zatia ordaindu baino lehen ere.
- Jarduerarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez erabiltzea ez hizkera ez irudi sexistarik.
- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakioken estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.
- Gaylur elkarteak bere zerbitzua eskaintzeko kontratatzen dituen enpresetako langileek adin txikikoekin lan egin behar baldin badute, 8/2021 Legea betez, sexu delituengatik zigor aurrekaririk ez dutela egiaztatu beharko dute. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzinasuna izan beharko du.
- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legean ezarritako neurriak betez, edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatea, sustapena, hornidura, salmenta eta kontsumoa mugatu beharko da, bereziki adingabeei zuzendutako jarduerak direnean.

Gaylur joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da erantzule zibil bakarra jarduera horren garapen normal edo anormalek erator daitekeen ondare-erreklamazioari aurre egiteko. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

EUSKARAREN ARLOAN

Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzearen GAYLUR elkarteak ondorengo urratsak emateko konpromisoa hartzen du euskararen normalizazioaren alde:



- Herritarrentzako idatzizko komunikazioak (publizitatea, egitarauak, kartelak, oharrak, prezioak, ...) euskaraz edo ele bietan egingo dira. Ele bietan eginez gero, lehentasuna emango zaio euskarazko testuari (kokapena, tamaina...).
- Haur eta gazteei zuzendutako ekintzak euskaraz izango dira; eta bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten duten pertsonak jarriko dira ekintza horien aurkezpenetan, zaintza lanetan eta abarretan.
- Gainerako ekintzen ahozko adierazpenak (jokuak, kontzertuak, aurkezpenak...) euskaraz edo ele bietan izango dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.
- Karpan, kalean, plazan... girotze musikarik jarriko dira gero, euskarazko musikaren presentzia bermatuko da.

KOMUNIKAZIO ARLOAN

Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan, Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko du GAYLUREk.

GENERO IKUSPEGIA.

Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, hizkuntza eta irudi inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen* irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestuz, eta berdintasun, presentzia orekatu, aniztasun, erantzunkidetasun eta genero-rol eta -identitate aniztasun balioak sustatuz.

Eskoriatzako herritarrei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak egitea, sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia sustatzeko.

KULTURA BATZORDEAREKIN ELKARLANA

Horrela eskatuz gero, Udalarekin, eta zehazki, kultura batzordearekin, elkarlanean aritzea urtean zehar.

LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagungarritzat joko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera zuzen justifikatuta egonda, beharrezkoak izan eta diruz lagundutako proiektu eta jardueren izaerari eta garapen normalari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak.

Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legeko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauko baldintzak betetzen ez badituzte.

BOSGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK.

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain-finantzaziorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.



SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINZEKO EPEAK.

Dirulaguntza modu honetara ordainduko da:

% 100a hitzarmen hau sinatu ondoren eta dirulaguntza justifikatu ondoren, 7. Baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta, betiere, abenduaren a baino lehen.

ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

2025eko abenduaren 2 baino lehen baino lehen, GAYLUR elkarteak ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du **modu digitalean**:

- Eskaera orria.
- LURANITZ jaialdiaren memoria xehatua.
- Jaialdiaren diru sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko.
- Gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Hasieran aurkeztutako aurrekontuari balantzea zein neurritan egokitu zaion egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Ziurtagiri bat diruz lagundutako jarduerarako jasotako dirulaguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe. Ziurtagiri horrek dirulaguntza jaso duen jarduera finantzatzeko egon diren bestelako diru-sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak jaso beharko ditu, zenbat diru eta zein erakundetatik jaso den zehaztuz.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Hizkuntza datuak (euskaraz egindako ekintza eta aurkezpenen zerrenda)

Kasu guztietan, honela justifikatuko dira gastuak:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldia baino lehenagoko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Era berean, fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- GayLur en identifikazioa.
- Enpresa kontratistaren edo hornitzailearen identifikazioa.
- Data.
- Horniketa edo zerbitzua sortzen duen jarduera.
- Horniduraren edo zerbitzuaren behar besteko deskribapena.



ZORTZIGARRENA.- UDAL LOKALAK PREKARIOAN LAGATZEA.

Eskoriatzako Udalak udal pilotalekuaren bigarren pisuan dagoen lokala prekarioan lagatzen dio GAYLUR elkarteari biltegi bezala erabiltzeko materiala gordetzeko.

Lokalen lagapena honako baldintza hauekin egiten da:

- Lokala prekarioan lagatzen dira, hau da, inolako kontraprestaziorik gabe.
- Gayluri 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte lagatzen zaizkio lokalak.
- Lokala materiala gordetzeko baino ez da erabiliko, eta GAYLUR elkarteak ezin izango du lokalaren erabilera aldatu. Lokala egoera onean mantendu beharko du, beharrezko konponketak egin beharko tu, eta jaso duen egoera berean itzuli beharko du kontratua amaitzean. Era berean, ezingo du obrarik egin aurrez Udalaren baimenik gabe, eta ezta hirugarren bati erabilera laga ere. Egiten den erabilera-lagapena ez da baztertzaila, hau da, GAYLUR elkarteak lokala beste erabiltzaile batzuekin partekatu ahal izango du, aldez aurretik GAYLUR elkarteak eta Udalak adostu badute.
- Eskoriatzako Udalaren kontura izango dira instalazioen mantentze-lanak, argindarra, ura, eta lokalari dagokion zabor-bilketa zerbitzua.
- SPIBEren kontura izango dira aurreko puntuan aipatu ez diren gastuak.
- Alde biek berariaz aitortzen diote elkarri GAYLUR zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko taldea dela, eta inolaz ere ez dagoela Udalaren menpe, azken horrek ez dituela zuzentzen lokaletan egin beharreko ekintzak, eta ez duela bere esku utzi eta ez diola ere inolako onespenerik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokalak lagatzen dituela, eta beraz, ez duela bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.
- Prekarioan lagatze hori iraungitzat joko da Udalak, aurrez eta hilabeteko aurrerapenarekin GAYLURri horrela eskatuta, lokalak erreklamaturakoan edo GAYLURek lokalak itzultakoan. Era berean, kontratu hau automatikoki iraungitzeko arrazoiak izango da ondasun horiek hemen aipatu ez den beste erabilera baterako erabiltzea.
- Udalak edo bere ordezkariak baimena izango dute lokaletara sartzeko zaintza lanak eta konponketa eta mantentze-lanak egin ahal izateko.

BEDERATZIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN PROZESAMENDUA.

Eskoriatzako Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu bere langileek hitzarmen honetan jasotakoa garatzerakoan informazio konfidentziala -eta bereziki, informazio pertsonala- erabili behar izanez gero, indarrean dagoen araudiaren arabera dagokien edozein betebeharrak bete eta araudi hori erabat errespetatu dezaten. Indarrean dagoen araudia esaten denean, bereziki, datu pertsonalak babesteko lege organikoa eta hori garatzeko erregelamendua esan nahi da.



Horretarako, langile horiek konfidentzialtasun eta sekretu profesional betebeharrari lotuta gelditzen dira eta eskuratutako informazioa bakarrik hitzarmen honetan aurreikusitako helburuetarako erabiliko dute.

HAMARGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen taldea eratzea, alde bakoitzeko ordezkariak osatuko dutena. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du taldeak eta, orokorrean, etorkizunean gerta litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: kultura teknikaria eta kultura batzordeburua edo berak eskuordetutako pertsona.
- GAYLUR aldetik lehendakari den Jonhatan Galan

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA.

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

HAMABIGARRENA.- IZAERA.

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.



EKS | CSV: ESKUc5f9841d-9e05-4d92-bb7c-a0a8955d2bfe



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025UDIR0005-HITZARMENA/CONVENIO ()

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2025/11/24 10:09:32

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 72459699Q JONATHAN GALAN (R: G56561277)

Data / Fecha: 2025/12/01 12:39:31